

**1. Tailerra: KOMUNIKABIDEEN EGINKIZUNA.****Vitoria/Gasteiz, 2006ko azaroaren 15a**

---

Tailer hau proposatu genuenean gunee bat sortu nahi genuen, komunikabideek –hartzen duten zereginaren arabera– estereotipoak (eta horrekin batera aurreiritzizko eta diskriminaziozko jarrerak) sortzen edota indartzen laguntzeko modua landuko duen gunea; era berean, komunikabideek estereotipo horiei kontra egiten eta horiek arintzen lagundu dezakete. Hau da, komunikabideek, nahi gabe edo nahita, elkarbizitza nola errazten edo zailtzen duten landuko duen gunea sortu nahi genuen.

Horri guztiari buruz hitz egiteko, komunikabideetako hainbat profesionalak eta haien kontsumitzaileetako batzuek (irakurleak, entzuleak, ikus-entzuleak, eta abar) hartu dute parte tailer honetan; eta horien artean, batzuk ijitoak dira. Aurreikusita zegoen tailer honetan Andaluziako kazetari ijito batek parte hartzea, baina osasun-arazoak direla medio ezin izan da bertaratu; hortaz, gaiari buruzko ijito-ikuspegia komunikabideen kontsumitzaileek bakarrik emango dute.

Tailerraren hasierako planteamenduaren asmoa ez zen argitaratzeko edo etorkizunean erreferentzia gisa hartzeko moduko akordio edo erabaki garrantzitsuak hartzea. Ondoren azalduko dena, hortaz, tailerlean sortutako ideiak edo iritziak dira soilik, edota tailerlean eztabaidagai gisa aipatutako ideiak edo iritziak:

- Ijitoak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 6 inguru dira. Gainerako gizartea osatzen dugun beste pertsonen ijitoen nolakotasunari buruzko ideiak ditugu, nahiz eta pertsona guztiek, hain zuzen ere gehienak, ez izan harreman zuzenik edo hartu-eman pertsonalik ijitoekin. Hortaz, gehienetan ALDEZ AURRETIK PENTSATUTAKO IDEIAK dira, ESPERIENTZIATIK SORTU EZ DIRENAK, baizik eta beste pertsona batzuek, eta askotan komunikabideetatik jaso ditugunak.
- Sarritan, komunikabideek ijitoen komunitateari buruz hitz egiten dutenean, MUTURREKO BI EGOERA azaltzen dituzte. Egoera horiek, egiazkotasuna alde batera utzita, ez dute ijitoen komunitatearen zati handiena azaltzen, baizik eta honako hau azaltzen dute:
  - a. Irudi idealizatu eta erromantikoa, alderdi folklorikoa, har artistikoa, askatasun-egarria eta abar azpimarratzen dituenak.
  - b. Irudi marjinala, bazterkeriari eta delinkuentziari lotua; horretaz gain, izaera hori bideratzeko ezintasuna azpimarratzen da, honako ideia hauetan oinarrituta: ijitoak ezin direla aldatu eta gizarteko gainerakoekin bizitzeko prestatuta ez daudela ezartzen duten hainbat determinismo kultural (ijitoen legea, esaterako).

- Ijitoen komunitateari buruz hitz egiteko modu horrek zerikusia du komunikabideek EMATEN dutenarekin eta EMATEN EZ DUTENAREKIN; halaber, ESATEN DENAREKIN eta ESATEKO MODUAREKIN ere badu zerikusia. Horri dagokionez, tailerrean hainbat ohar egin dira:
  - a. Hainbat komunikabidetan erabiltzen ez duten arren, oraindik ere komuna da ijitoen komunitateari buruzko gaiak bakarrik aplikatzen zaien LEXIKO mota bat erabiltzea. Lexiko horrek tratu desberdina ematen zaiela adierazten du (hala nola “reyerta” edo “patriarka” hitzak paradigmakoak dira).
  - b. Batzuetan berria irudiztatzen duten IRUDIAK (ez bakarrik ijitoen komunitateari buruzkoak direnak, jakina, baina baita ijitoen komunitateari buruzkoak direnak ere) editorial oso bat eratzen dute, hala nola azpietxebizitzaren edo txabolismoaren egoera azaltzen duten argazkiak, edozein udalerritan ijitoek bizi duten egoerari buruzko kazetaritza-artikulu bat ilustratzeko erabiltzen diren argazkiak.
  - c. Gaur egun ere ijitoak, gehienetan, *INFORMAZIO GHETTO* moduko batean kokatzen dira, hau da, ijitoen gaiekin zerikusia duten berrietan ijitoak bakarrik azaltzen dira komunikabideetan, politikarekin, kirolarekin, kulturarekin eta antzekoekin zerikusia duten gaietan, ordea, ia ezinezkoa da ijitoak ikustea; era berean, ia ezinezkoa da hainbat saiotan aurkitzea (solasaldietan, bihotzeko saioetan, kalean egindako inkestetan, eta abar).
  - d. Azkenik, funtsezko beste gai bat da ijitoen ADSKRIPZIO TEKNIKOAK gertaeren orrialdeetan. Hau da, delitu bat egiten duena ijitoa bada adierazi egiten da ijitoa dela, eta horrek ez dio bakarrik ijitoei eragiten, baita beste gutxiengo batzuetako pertsona batzuei ere. Egoera horrek gehiengo gizarteari inoiz aplikatzen ez zaion arau bat osatzen du, gehiengo horri buruz ez baita informaziorik ematen, eta informazioa ematen bada, ez da aipatzen. Gai horri dagokionez, oraindik ere piztuta dago honako eztabaida hau: *ustekabeko* aipamena ote den edo egozte *kausala* ote den. Komunikabideetako hainbat profesionalen iritziz *ustekabeko* aipamena da (hau da, atxilotu bat ijitoa dela esaten da, baina era berean esan zitekeen beltzarana, baxua eta biboteduna dela); ijitoen gehiengoak, ordea, uste du egozte kausala dela (gertaeraren zati bat edo gertaera osoa azaldu nahi da gertaera hori egin duena ijitoa delako).
- Aurrekoa gorabehera, bidezkoa da beste hainbat gai ere onartzea:
  - a. Egia da ijito guztiak ez direla berdinak, baina egia ere bada KOMUNIKABIDEETAKO PROFESIONAL GUZTIAK EZ DIRELA BERDINAK, eta profesional horiek ere eska dezakete haientzat Secretariado Gitano Fundazioak egindako kanpainaren leloak ijitoentzat eskatzen dutena: “Epaitu aurretik, ezagutu”.
  - b. Era berean, egia da komunikabideak direla iritzi sozialaren sortzaileak, baita KOMUNIKABIDEETAKO PROFESIONALAK GIZARTE HORREN ZATI

DIRELA ere, eta profesional horiek gizarteak orokorrean partekatzen dituen estereotipoen eta aurreiritzien eraginpean daude, askotan horretaz jabetu gabe.

- c. Halaber, kontuan hartu behar da IRAKURLEEK, ENTZULEEK, IKUS-ENTZULEEK ETA ABARREK DUTEN ROLA, horiek askotan nahiago izaten baitute beren aurreiritziak berresten dituzten berri zantarrak eta liskarrak entzun bestelako informazio batzuk entzun baino. Norberak dituen ideiak zalantzan jartzen dituen informazioaz ari gara, dedikazio handiagoa eskatzen duen eta gauzak nolakoak diren edota nolakoak izan beharko luketen azaltzen digun informazioaz, hain zuzen ere.

Tailerrean parte hartu dugunok ez dugu gomendio orokorrak emateko asmorik, bai, ordea, gauzak hobera alda daitezen laguntzeko asmoa, zeren gure ustez nahitaezkoa baita IJITOEN ELKARTEEKIKO HURBILKETA GEHIAGO BULTZATZEA, IJITOEN KOMUNITATEAREN ELEDUNEI ETA ORDEZKARIEI ETA KOMUNIKABIDEEI DAGOKIENEZ. Beraz, komenigarria litzateke ijitoen elkarteek ondo zaindu beharreko lan-arlo gisa hartzea komunikazioari buruz esandakoa, horretarako honako hau egin beharko dute: ijitoen ordezkarietako harremana erraztu, ijitoen komunitatearen beste irudi positibo batzuk argitaratzea ahalbidetuko duten berriak edo aukerak sortu, komunikabideek modu monografikoan landu ditzaketen gaiak proposatu, eta haien ustez parte hartu behar duten saioetan parte hartzeko aukera eskaini. Halaber, komunikabideetako profesionalek ijitoen komunitatearen heterogeneotasuna ezagutzeko eta komunitate horrek dituen ñabarduren aniztasun eta aberastasun guztiak azaltzeko ahalegina egin beharko dute, informazioa iturrietan bertan lortuz, iritziak ijitoen elkarteekin egiaztatuz eta ijitoei eremu guztietarako ateak zabalduz; era horretan aniztasunari bidea irekitzeko.

Tailer hau prestatzeko erabilitako dokumentu batzuk honako esteka hauetan kontsulta daitezke:

- Kazetaritza Lanbidearen Kode Deontologikoa  
<http://www.periodistasvascos.com/codigo.html>
- Gutxiengo Etnikoei buruzko Estilo Eskuliburua, Kataluniako Ikus-entzunezko Batzordearena  
<http://www.audiovisualcat.net/publicaciones/Q12cast.html>
- Unión Romani Elkarte: Kazetariak Arrazakeriaren aurka  
[http://www.unionromani.org/perios\\_es.htm](http://www.unionromani.org/perios_es.htm)
- Secretariado Gitano Fundazioa: Prentsa Aretoa (hainbat)  
<http://www.gitanos.org/servicios/prensa/home.htm>